

KOSTUAK

Hasieran inbertsio handia egin beharko dugu Jaladame aurrera atera ahal izateko, horretarako, lauron artean lehenagoko proiektu baten bitartez ditugun aurrezkiak erabiliko dugu hasiera emateko Jaladameri.

Gure zerbitzua aurrera eramateko zenbait kostu izango ditugu. Alde batetik, **kostu finkoak** izango ditugu: argia, ura, alokairua, mailegua, soldatak eta hasiera batean lokala hornitzeko beharrezko izango dugun materiala, hala nola, mahaiak, aulkiak, ordenagailuak, pantailak, proiektoreak, altzairuak... Ez da beharrezkoa izango material guztia hasieran erostea, material apur batekin ireki dezakegu eta hilabetero altzairuak erosten joango gara.

Bestalde, **kostu aldagarriak** izango ditugu: haurrekin erabiliko den materiala, adibidez ipuinak, margoak, liburuak, kortxoak... Azkenik, noiz behinka hitzaldiak ematera etorriko diren pertsonen hitzaldiengatik diru kopuru bat emango zaie.